



ctb

bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

PRENTSA-OHARRA

Garraio Partzuergoak proba pilotua hasiko du Barik txartela sakelako telefonotik kargatzeko

- **Barik txartel pertsonalizatuak (argazkidunak) edo erregistratuak dituzten bezeroak aukeratuko ditu BGPK, eta haiekin “app” berri bat probatuko du 4 hilabetez zehar. Android 4.0 sistema eragilea edo berriagoa eta NFC teknologia dituzten sakelako telefonoentzat izango da aplikazioa.**

Bilbo, 2015eko uztailaren 16a.

Bizkaiko Garraio Partzuergoak (BGP) gaur bertan hasiko du Barik txartelak sakelako telefonoaren bidez kargatzeko proba pilotua. Oraingoz, sistema probatuko duten erabiltzaileak bila dabil BGPK, baina urtea amaitu baino lehen modu masiboan erabili ahal izango da. Proba egingo duen taldean sartu nahi duten boluntarioek Barik pertsonalizatua (argazkiduna) edo erregistratua eduki behar dute; horrez gain, haien sakelako telefonoak NFC teknologia eduki behar du, eta telefono horren sistema eragilea Android 4.0 edo berriagoa izan behar da.

Baldintza horiek betez gero, bezeroek hemen eman dezakete izena: Partzuergoaren webguneko (ctb.eus) “nire Barik-en sartu” aukera, “NFC PILOTUA” atala. Gero, BGPK esteka bat bidaliko dio mezu elektroniko baten bidez, esteka horretan klik eginez sakelako telefonorako “app”-a jaitsi ahal izateko. Aplikazio berri horri esker erabiltzaileak edozein Barik kargatu ahal izango du, nahi beste aldiz. Horretarako, kargatu nahi duen billetea aukeratu behar du, eta bankuko txartel baten datuak sartu (merkataritza elektroniko segurua) zenbateko hori ordaintzeko.

Hobekuntza horri esker, *smartphonea* Barik txartela kargatzeko puntu berria izan dadin lortu nahi du BGPK. Barik txartelaren garraio-tituluak “on line” kargatzea da BGPKren helburua. NFC aktiboa duen terminal mugikorra erabili behar da, eta zenbatekoa ordainketa seguruak egiteko atebidearen bidez egin. Horrela, edozein tokitatik eta txartela kargatzeko puntu finko batera joan beharrik izan gabe gehitu dezake erabiltzaileak txartelean duen saldoa; eta modu berean, Barik txarteleko edozein garraio-titulu erosi dezake. Beraz, hobekuntza garrantzitsu honen bidez garraio publikoaren erabilera erraztuko da.

Ticketing sistemen eremuan izaten diren azken aurrerapen teknologikoak, pixkanaka, Bizkaian ezarri nahi ditu BGPK; eta, hain zuzen, proiektu pilotua BGPKren politika horren barruan sartzen da. Proba ondo ateratzen bada, BGPK urte amaieran modu masiboan ezarriko luke teknologia hori. Horrela, gaur egun Barik txartela kargatzeko ohiko puntuetan bakarrik (Metro Bilbao, Euskotren, Euskotran, Renfe (Feve barne), Larreinetako funikularra, Artxandako funikularra, Bilbobus eta Bizkaibuseko kabinak, tabako-dendak, kioskoak, merkataritza-lokalak eta BBKren kutxazainak) egin daitezkeen eragiketak (kargak eta informazioa jaso) errazago egin ahal izango lirake. Gaur egun 1,2 milioi Barik txartel baino gehiago daude zirkulazioan, eta txartelak kargatzeko 800 puntu baino gehiago aurki ditzakegu Bizkaia osoan.

Aplikazioa garatzeari dagokionez, BGPK Idom, Ingenieria y Consultoria, S.A. enpresaren laguntzarekin lan egin du, eta 96.000 euroko bi kontratu adjudikatu zituen 2014. urteko urrian. Lehenengo kontratua Nafarroako Tecnología del Software, S.L. (NTS) enpresak dauka. Enpresa honek aplikazio bat sortu du NFC (Near Field Communication) teknologia duten Android



ctb

bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

gailuentzat; eta horren bidez, haririk gabeko komunikazioa (irispen laburrekoa eta maiztasun handikoa) egin daiteke gailuen artean, kasu honetan, txartelaren eta sakelako telefonoaren artean. Bestalde, bigarren kontratua Smarting Engineering, S.L. enpresak dauka. Enpresa honek Barik txarteletarako eragiketa kriptografikoak eta egiaztatzeko eragiketak diseinatu ditu; horrez gain, transakzioak bermeekin egiteko ordainketa seguruaren atebidea eta segurtasun-sistema egokiak diseinatu ditu.

Gama altuko eta ertaineko telefono batzuek badute hurbileko komunikazio-sistema. Horrelako sistema gero eta ohikoagoa da merkaturatzen diren terminal mugikorretan. Adituen ustez, datozen urteetan nabarmen gehituko da teknologia mota honen erabilera; aplikazio desberdin ugari agertuko dira horretarako. Kasu honetan, lehenengo aldiz probatuko da NFC teknologia *Mifare® Desfire* EV1 izeneko txartel batean (Barik). Horregatik egin nahi du BGPK proba pilotua lehenbizi, ezarri baino lehen, ondo funtzionatzen duen jakiteko.

Azterketa orokorraren emaitzak aztertu ostean hartuko da teknologia horren ezarpenari buruzko behin betiko erabakia; izan ere, lehenbizi, aldagai desberdinen arabera (adina, txartel mota, ohiko billetea, erabiltzen den garraio-mota, ...) bezero batzuk aukeratuko dira, eta hauek, Barik txartela NFC duen sakelako telefonoaren bidez kargatzeko sistema probatuko dute hurrengo 4 hilabeteetan.

Proba pilotuan izena eman duten pertsonak, onartuak izan badira, zozketa batean parte hartuko dute, gainera; hots, proba pilotua amaitu ostean Nexus 6 markako hiru sakelako telefonoren zozketan sartuko dira (ikus zozketaren oinarriak BGPKren webgunean).

Informazio gehiago duten bideoa eta liburuxka, eta sustapenaren oinarriak hemen:
www.ctb.eus